


ezagutzen al duzu Donostia?

Zurriola

Donostiako ingurune zabal eta era berean ezezaguna dugu Zurriola. Urgull eta Uli mendien artean dagoen barren zabal hori da «Zurriyola» (azken forma hau gure aiton-amona jatorrek erabiltzen zuten) XVIII. mendearen hasieratik horrela azaltzen da plano guztietan: «Zuriolle», «La Zurriola», «Arenales de la Surriola», «Peñas de la Surriola», «Dunas de la Zurriola», «Ensenada de la Zurriola»... Zergatik dago Donostiako leku-izen guztiz garrantzitsu hau ia galtzeaz? ...nahiz eta Serafio Mujikak «Zurriolako auzoa» deitu, «Gros» pertsona abizena jabetu da inguru hauetaz. Penagarria benetan gure ondarearen galera! Pentsa Uru-mearen Barraren ondoan dagoen zubiaren izenez dauden eztabaidak: Kur-saaleko edo Zurriolako zubia ote den! Groseko edo Zurriolako hondartza ote den! ... bitartean gure «Zurriyola» jatorra betirako galtzera doa. Zurriola XIII. mendean agertzen da aurreneko aldiz betidanik izen honekin ezagutzen zen kale batean. Kale hau gaur San Juan eta Aldamar kaleak kokatzen diren tartean zegoen; 1813. urteko sutecaren ondoren desagertu zen, eta Zurriola kale-izena gaur Argentina Errepublika deitzen den pasealekuari



Argazkia: Imanol Olegi

jarri zioten. Azken izen hau 1913. urtean jarria da Amerikako lur haren omenez. Zurriola ofizialki desagertu egin zen eta azkenik Zurriola Hiribideak berreskuratu zuen berriz izena ofizialki

1979. urtean... 66 urte ondoren! Hortik dator zalantzarik gabe leku-izen galtze hau. Azkenik, oroituz ditzagun donostiar bertso zahar hauek:

*«Olentzero begi gorri
nun arapatu dek arrai ori?»*

Zurriolako senoa Urgull gainetik hartua.

*Zurriolako arkaitzetan
bart arratseko anaiketan!»*

Gaur «Tomas Grosen» harkaitzetan harrapatu beharko dugu arrain hori!

JOSU TELLABIDE

Donostiako kantutegia



J.I. ANSORENAK proposatua

Libertadea

Libertadea eskatzen diogu
herri hontako alkate jaunari.
eta jendea alegratzera
gaur gera gu honera etorri.
Entzun, herri maitea,
alaitu jendeak,

bixiguak ez du eman
aurtengo neguan.
Antxoak emango du
azaltzen danean.
Irabaziko degu
hurrengo batean.

Beste itsas-ertzeko herrietan, Gipuzkoan behinik behin, ezaguna da kanta hau. Baina Donostiako kantuan, giro euskalduna zegoenean, oso kantatua zen. Bazen Joxe izeneko arrantzale bat, nire gazte garaian laregei urte ingurukoa eta Aitzaki soziedadean maiz ibiltzen zena. Hori izugarri gustatzen zitzaion abesti hau kantatzea bazkalondoetan. Pasodoble arrunt baten airean abesten da.